

Zein behar edo arazo konpontzen duzu? Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gaur egun, sare sozialen gorakadarekin, jende askok bere bizitzaren bertsio perfektua erakusten du, nahiz eta askotan errealitatea bestelakoa izan. Hori dela eta, gizarteak konplexuz betetako presioa sortzen du, eta pertsona askok beren itxurarekiko ziurgabetasun handia sentitzen dute.

Ilea galtzea eragiten duten hainbat gaixotasunek egoera hori are zailagoa egiten dute. Gaur egun oraindik ez dago guztiz normalizatuta, eta horrek kaleko begiradak, komentario desegokiak edota deseroso sentiarazten duten egoerak eragiten ditu.

Gu arazo horri erantzutera gatoz; egoera hau bizi duten pertsonak seguruago eta lasaiago senti daitezten. Ileorde ekologikoak sortzean datza gure enpresa. Bezeroari erosotasuna, konfiantza eta normaltasuna itzultzen dizkioten soluzio pertsonalizatuak eskaintzen ditugularik.. Gure balioa ez dago soilik produktu edo zerbitzuan; eskaintzen dugun laguntzan, elkartasunean eta pertsonarengan jartzen dugun arretan ere badago bezeroari eskeiniko diogun balio erantsia eta gure produktua diferentziatuko duena.

Ekologiko eta naturalak izateaz gain, gure irabazien zati bat minbiziaren inguruko ikerketetara bideratzeak bereizten du gure enpresa besteengandik. Bezeroak ordainketa egitean, azken produktua erosteaz gain, minbiziaren aldeko ikerketetan ere inbertitzen duela jakiteak gure aldeko hautua egitera animatuko ditu.